


Ondo bildutako gai anitzen bilduma



Gai anitz jorratzen ditu Kepa Altonagak Armand Daviden bizitza ardatz hartuta

Iban Zaldúa

Euskal literaturaz hitz egitean, saiakera arloaren azpigarapena aipatzen da maiz. Badirudi azken urte hauetako emaitza bikainak topikoa higitzen hasiak direla, ordea: azkenaldiko onenen artean hor ditugu, besteak beste, P. Alberdiren *Satorrak baino lurperago*, eta, jakina, A. Lertxundiren *Mentura dugun artean* ederra. Mugaldeko genero honetan kokatu nahiko nuke Kepa Altonagaren liburu zoragarri hau.

Zientzia dibulgazio lana bezala aurkezten zaigu obra (dibulgazio garaikoa, gehitu beharko genuke), baina, Altonagaren aurrekoa bezala (*Folin markesa. Marraskiloak eta euskaldunak uharte galduan*), dezentte haratago doa *Armand David*, asmoz zein emaitzaz. 1998ko lan hartan bezala, naturalista baten biografia da liburuaren ardatza, kasu honetan Armand David josulagun ezpeletarrarena (1826-1900), eta, beraz, garrantzi handia ematen zaie natur historiaren arloan gauzatu zituen ekarpenei, batik bat Txina aldean 1866 eta 1874 artean egin zituen bidaietako aurkikuntzei (besteak beste, European ezezagunak ziren zenbait espezieen deskribapen zientifikoei: pandarena, Aita Daviden oreinarena, urre-tximinoarena, etab.). Baina aitzinsolasean bertan Altonagak zehazten digunez, horrekin lotuta beste hainbat kontu «zoologiko, floristiko, geopolitiko, paleontologiko, lexikografiko, biogeografiko, kontserbazionista, historiko, genetiko eta abar» jorratzen dira: hau ez da inolaz ere naturari buruzko liburu-dokumentu soil bat, ezta euskal pertsonaia historiko erlatiboki ezezagun baten ohiko hagiografia ere, ondo bilbatutako gai anitzen bilduma baizik. Eta ziur nago irakurle orok (baita naturazaleak ez direnek ere) topatuko duela intereseko zer edo zer orrialde hauetan zehar.

Hala, adibide batzuk jartzearen, Aita Daviden oreinaren atalean, animalia horren eta XIX. mendeko Txinaren berri historikoak emate-

Saiakera: Armand David, pandaren aita.
Kepa Altonaga.
Elhuyar, 2001.
251 orrialde
20 euro

az gain, egilea giltzapeko animalien berreskurapen eta hazkuntza-planen gaur eguneko problematikaz aritzen da; uso-zuhaitzaren aurkikunde esploratzaile eta geografo europarren eta inperialismoaren arteko harremanak aztertze-ko parada da; pandaren «aurkikuntzaren» istorioarekin batera natur erreserben arazoak aztertzen dira, eta baita euskal hiztegiaren balizko aje eta sendabelarrenak ere (modu dotorean, baina polemikari ihes egiteko asmorik gabe); amaierako

Irakurle orok (baita naturzaleak ez direnek ere) topatuko du intereseko zer edo zer orrialde hauetan

atalak Daviden azkeneko urteak kontatzen dizkigu, baina aldi berean euskal identitatearen korapiloen analisisan sakontzeko aukera bilakatzen da (*Folin markesa*-ren laugarren kapituluarekin lotu dezakegu, beraz, hein batean behintzat). Ikus daitekeen bezala, nekez sartuko dugu liburu hau natur historiako dibulgazio soilaren kaxoi estuan.

Gai horiek guztiak interesgarri bihurtzeko modua aurkitzen du beti Altonagak, eta horretan laguntzen diote liburu hornitzen duten argazki, marrazki eta mapek (liburuaren alde grafikoa bereziki zainduta dago). Baina Altonagaren meritua ez datza soilik gai anitz horien tratamendu egokian, baizik eta


baita puntuak elkarrekin harilkatzeko duen abilezian ere: antolaketaz ez da batere kapritxozkoa, eta hori da, nire ustez, liburuaren zutabe sendoenetako bat, euskal saiakeraren arloan berria baita, hein batean behintzat. Ardatza, aipatu bezala, David aitaren bizitza eta bidaiak dira, ordena kronologikoan alegia, eta atal bakoitza josulagunak aztertutako edo «aurkitutako» espezie baten inguruan antolatzen da (atalak zortzi dira guztira, gehi eranskin bat). Baina ardatz horretatik abiatuta, eta modu *kontzentriko* batean (edo, egileak berak dioen bezala, «meandroak» eginez) abiapuntuarekin loturaren bat duten gai horiek azalduz doaz, mosaiko gero eta zabalago bat osatuz. Izan ere, Altonagak liburu «saltoka» irakur daitekeela aipatzen duen arren, hots, norberak nahi duen ordenan, uste dut (J. Cortazarren *Rayuela*-ri gertatzen zaion bezala) komenigarria dela autoreak proposatutako ibilbideari lotzea, liburuaren aberastasuna bere osotasunean geureganatu ahal izateko.

Edonola ere, Altonagaren idazteko modu bereziak asko zor die, egileak aitortzen duen bezala, D. Quammen eta S. Jay Gould zientzialarien dibulgazio lanei; nik Gouldenak ezagutzen ditut, eta zailtzarik gabe esan dezaket Altonagarenak ez daudela estatubatuarren lanen mailaren azpitik. Gould bezala, Altonaga biologoa da, baina ikusmira zabalekoa, kultura handikoa alegia, historia, literatura eta beste hainbat konturi buruzko informazio aberatsa duena, eta, gainera, berezkoak dituen gaiekin txertatzen dakiena (bide batez, irudien oin-harrak egokiak baino gehiago dira: informazio gehigarri polita eskaintzen digute, eta ustekabe gozagarri anitz).

Euskara zehatz eta aberatsa dabil Altonagak, dotorea, literatura maila handikoa; hizkuntzari egiten dizkion ekarpenak eztaba daezinak dira. Euskara batua da, bai, baina bizkaieratik aberastutako euskara batu bat, bere helburua eraginkortasun osoz lortzen duena; aitortzen dut Koldo Zuazo irakasle izan nuenetik mania pixka bat hartu niola bizkaierari, baina Altonagarena bezalako lanek (besteak beste) betiko adiskidetu naute mendealdeko euskararekin.

2001 urteko euskal literatura uzta- ren emaitzarik nabarmengarrietako bat, beraz. Oso kontuan hartu beharko luke, nire ustez (eta ez dut esajeratzen) Euskadi Sarietako epaimahaia... betiereko *no-belitisak* jota egongo ez balitz, jakina.

Pako Aristik Pedro Sudupe 'Gelatxo' trikitilariaren inguruko biografia idatzi du



Biografia: Gerlatxo, soinuaren bidaia luzea.
Pako Aristi.
Euskal Herriko Trikitixa Elkartea, 2001.
89 orrialde.
15,03 euro.

Pedro Sudupe Esnaola *Gelatxo* (Elgoibar, 1928) 12 urterekin hasi zen musika ikasten, eta Jazinto Rivas *Elgeta*-rekin elkartu zen urte berean. Hamaika saio eskaini zituzten elkarrekin ondorengo urteetan, eta Euskal Herriko Trikitixa Elkartea, bataren zein bestearen inguruko liburu-disko bana argitaratuz, Soinuaren Liburutegia sail berria abiatu du.


Hamasei gazteren olerki, ipuin eta ilustrazioak bildu ditu Mikelazulo elkarateak



Bilduma: Beste bat apalerako.
Askoren artean.
Mikelazulo Elkaratea, 2001.
197 orrialde
7,82 euro

Oreretako (Gipuzkoa) Mikelazulo Kultur Elkarateak argitaratzen duen hirugarren liburu da hau, eta, bertan, hamar idazlek eta sei margolarik eginiko lanak bilduten dira. Aitzol Ezeiza, Garazi Urdanpilleta, Oier Guillan, Asier Sarasola, Urtzi Urkizu, Juanma Sarasola, Ane Sarasketa, Jon Pikasari, Jokin Zuzuarregi eta Miren Salaberria dira idazleak. Ilustratzaileak, berriz, Iker Badies, Idoia Beratarbide, Igor Errazkin, Maider Kalonje, Asier Errazkin eta Txima Vazquez dira.

Jan Neruda txekiarraren lanik ezagunena euskaratu du Fernando Reyk



Narrazioak: Mala Stranako ipuinak.
Jan Neruda.
Itzulpena: **Fernando Rey.**
Ibaizabal, 2001.
164 orrialde.
6,25 euro

Bere bizitzan atzerantz begiratu eta zenbait pasadizo kontatu zituen Jan Neruda txekiarrak liburu honetan, hamar ipuin laburren bitartez. Mala Strana Pragako auzo bat da, eta XIX. mendeko hango bizimoduaren deskribapena egiten du Nerudak lan honetan, estilo periodistikoa, deskriptiboa, zuzena erabiliz. Nefatali Reyes txiletar idazleak idazle honengandik hartu zuen *Pablo Neruda* goitizena.